Christophe Khatchadourianek aitortu egin du Cynthia neskatila erail zuela

Hilketa horregatik Polizia bila ari zen gaztea errenditu egin zen atzo goizean

Christophe Khatchadourianek atzo aitortu zuen berak hil zuela iragan ostegunean Cynthia neskatxa eta beste neskatila bati, egun berean, eraso egin ziola. Ordu batzuk lehenago, bere amaren etxe batean ezkutatuta zelarik, bere burua entregatu zion Poliziari. Baziren bost egun poliziak eta jandarmak haren bila zebiltzala, eta haren aurpegia ere komunikabide guztietan plazaratua zela.

Allande Sokarros / **Baiona**

Christophe Khatchadourian, Bordeleko neskatoaren ustezko hiltzailea.
STR / EPA

POLIZIA indarrek Lanton herriko -Arcachondik hurbil- landa etxe bat inguratu zutelarik astelehen gauean, Christophe Khatchadourian barruan zegoela bazekiten. Izan ere, iragan ostegun arratsaldeaz geroztik, 150 polizia eta jandarma 25 urteko mutil horren bila zebiltzan. Bere amaren etxe batean ezkutaturik zen eta, hain zuzen ere, hark zuen konbentzitu bere burua eman zezan. Hala egin zuen atzo goizeko 04:00ak inguruan, Lantongo etxetik atera, eskuak airean eta errenditu zelarik Claude Palmier Polizia komisarioari.

Ordu batzuk geroago, berriz, Bordeleko Rhote prokuradoreak jakinarazi zuenez, Khatchadourianek aitortu egin zuen Cynthia Cazaurang neskatxa erail zuela iragan ostegunean Cenon hirian (Gironda) eta ordu zenbait geroago Sophie, hamar urteko beste neskatila bati eraso ziola eta zauritu zuela Audenge hirian, Arcachondik hurbil. Sophie neskak Khatchadourian ezagutu zuen Poliziak erakutsi zizkion argazkietan, eta baietsi zuen hark zuela bere autoaren barnerat bildu nahi izan. Neskak uko egitean, erasotzaileak hiru labana ukaldi eman zizkion.

Khatchadourian atxilotzearen berriak lasaitasun apur bat ekarri zuen Cenongo bizilagunen artean, eta batik bat La Maregue auzoko egoiliarren artean. Ostegunneko gertakariaz geroztik egin ohi duten bezala, atzo ere herritarrek lore sortak jarri zituzten Cynthia erail zuten janari-dendaren aitzinean. Atzo arratsean ehunka herritarrek ibilaldi isila egin zuten neskatxa eskolatuta zen Jean Zay ikastetxe aitzinetik La Maregue auzoko gimnasiora, eta han oroitzapen gaualdi bat egin zen. Gaur, berriz, arratsaldeko 16:00etan, Cynthiaren hiletak izango dira Cenongo Saint-Romain elizan, eta bertan ere jende ugari biltzea espero da.

Sophie neskatila labana ukaldiz zauritu zuen • Cynthiaren gorpua Michel Khatchadourianen janari-dendako hozgela barruan aurkitu zuten, iragan ostegun arratsaldean, 15:00ak inguruan. Poliziak dendan bertan aurkitu zuen krimaren arma, 22 LR kalibreko pistola bat, eta hasieratik susmatu zuen Christophe Katchadourian semeak bazuela zerikusia erailketarekin. Susmoa areagotu egin zen Christophek ihes egina zela ohartu eta gero. Cynthia neskatilak eraso sexualik izan zuenez jakiteko gisan, azterketak abian jarri ziren berehala. Ostegunean bertan Poliziak jaso zuen berria, Audenge herrian, Girondan beti, Sophie hamar urteko neskatxa gizonezko batek eraso eta zauritu zuela, eta berehala pentsatu zuten ihes egindakoKhatchadourian izan zitekeela eraso egilea.eta hala egiaztatu zen. ✗

Orleans hirian atzo ez zen garraio publikorik izan, segurtasun eskasiaz protesta egin baitzuten gidariek

Frantzia osoko arazoa konpondu nahian mahai-ingurua antolatuko du Gayssot ministroak

A.S. / **Baiona**

ORLEANS hiriko (Loiret) autobus gidariek lana utzi zuten atzo berriz ere, azken denbora hauetan jasaten dituzten erasoez protesta egiteko. Iragan larunbatean ere arrazoi berarengatik greba egin zuten, baina orduz geroz eraso gehiago gertatu da, eta horregatik zuten atzo ere lana uztea erabaki. Garraio publikoko enpresako zuzendaritzak, haatik, erran zuen bigarren greba egun hori ez zuela ongi ulertzen, autobus gidarien eskari nagusiari erantzunda, segurtasun agenteak kontratatuko direla baietsi baitzuen. Hala ere, autobus publikoetako gidarien % 60 inguruk lana utzi zuten atzo. Zuzendaritzaren arabera, greba egun bakoitzak 300.000 liberako galerak eragiten ditu, eta Orleans inguruneko 70.000 herritar inguru garraio publikorik gabe uzten ditu.

Atzo, aldiz, Chalons-sur-Saone hiriko autobus publikoetako gidariek lana hartu zuten berriro, bezperan greba egin ondoren. ✗

EUSKAL HERRIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

Egunkaria

LEHIAKETA

Abenduaren 14an jokatuko da Bertsolari Txapelketaren Finala Donostian.

EUSKALDUNON EGUNKARIAK **Karibera** (Dominikar Errepublika) **bederatzi egunez** joateko aukera eskaintzen dizu gure Porran parte hartuz.
Nola? Asma ezazu nortzuk izango diren finaleko saioan lehen hirurak eta bi lagunentzako bidaiaren zozketan hartuko duzu parte.

Bete beheko fitxa, bidali EGUNKARIAra abenduaren 12a baino lehen eta zorte on!!

* Bidaia behe-denboraldian izango da

IZEN-DEITURAK: ....
HELBIDEA: .... PK.: ....
TELEFONOA: ....

1. ....
2. ....
3. ....

Egunkaria: Gudarien etorbidea, z/g - **20140 ANDOAIN** (Gipuzkoa)

Babeslea: VIAJES EROSKI BIDAIAK

Prezio onak baino gehiago